



Haurrak, furgoa edo masterra

Denbora luzea daramat kontatuko dizuedanari bueltak ematen, baina orain arte ez naiz ausartu paper gainean jartzera. Batik bat nire beldurra da euren buruak aipatutzat joko dituzten pertsonak moskeatzea eta pentsatzea ergela edo bekaiztia naizela. Ez dudanez uste horrelako ezer egia denik, eta oinarritzat hartzen dudanez egoera jakin batzuen karikaturizazioak eta satira puntu batek kritika zorrotza atseginago eta digeritzeko errazago egin dezakeela, hor doa nire hausnarketa.

Titularreko hirukoa ez da kasualitatea, hiru elementuk osatzen dute, eta uste dut elementu horiek definitzen dutela neurea ere baden belaunaldi baten bizi-unea. 30 urte gaudituta, etorkizuneko espektatiba konplikatuekin emozio-, klima- eta ekonomia-mailan, presa sartu zaigu arazo kolektiboei irtenbide indibidualak bilatzeko. Oso pertsona gutxi geratzen dira nire inguruan hiru aukera hauetako bat hautatu ez dutenak: haurrak, furgoa edo masterra.

Lehenaren kasuan, profila da lan eta ekonomia egoera egonkorragoa duen jendearena eta ibilbide jakin bateko bikote harremana duenarena. Egiatzki, haurrak izateak errutina asko aldatzen ditu pertsonen bizitzetan, baina topatu dudak joera orokorra ez da, zehazki, hazkuntza sozializatzearena, gehienok ezagutu dugun familia tradizionalaren

Agian mundua jan nahi genuen eta mukiak jaten amaituko dugu, amestu ez ditugun bizitzak onartzen

eredutik harago. Kontrara, familia-nukleo berriak arreta guztia xurgatzen du, eta bigarren planoan geratzen dira –eskuzabalak izanda– ordura arte gurasoek lagun izan dituzten loturak.

Bigarren elementuak kontraesan bat zirriborratzen du, ustez gorrotatu dugun gizarte-eredu kapitalistarekin. Kanpe-izatutako furgoneta bat erostea, erregaia gastatzeko eta gure egunerokotasun estresatu eta produktibistatik urrun dauden leku guztietara iristeko. Hau da, esperientziak eta lekuak kontsumitzeko eredu bat, itxura *ecofriendly* eta jasangarria duena, ustez publiko guztien eskura dagoena, baina izatez kontzientzia baretzeko marketin hutsa dena. Profil honen protagonistak dira haurrak hazteko fase goiztiarrean dauden bikoteak, edo, halakorik ezean, maitasun erromantikoare-



DAVID BOU
DIRECTA-KO
KAZETARIA

kin desengainatuta dauden pertsonak, eta nahiz eta lehenago edo geroago berriro saiaturiko diren, orain ihes egiteko balbula bat behar dutenak.

Azkenik, unibertsitate-masterraren aukera ona geratuko litzaiguke, noraezean dabilzan ezkongabeentzat gordea normalean. Ez da edozein master, irakasleena baizik. Noski, gehienek edozein unibertsitate pribatutan 6.000 euro baino gehiago ordaintzea erabakitzen dute, ez dirua soberan dutelako, ezpada fakultateko tabernan ordu gehiegi eman ditugulako eta karrerako batez besteko nota ez delako nahikoa publikoan eskaintzen diren plazarako. Hamalau paga, hilean bi mila eurotxo eta bi hilabeteko oporrak. Bokazio pedagogikorik ez baduzu, agerraraziko duzu, ukatu zaigun egonkortasun desiraturako bidean.

Eta, jakina, panorama horrekin, jada ezagutzen ditut guraso bananduak, bigarren eskuko furgonetak desguazera bidean, eta gain hartutako irakasleak curriculumak berregiten. Eta nik ezin dut saihestu, umetan esaten zidaten esaldi honek durundi egin ohi dit buruan: “Pasatuko zaizu errebelia nagusi zarenean”. Agian mundua jan nahi genuen eta mukiak jaten amaituko dugu, amestu ez ditugun bizitzak onartzen. Egia esan, une honetan, dirudienek konformatu behar garen hiru bide horietatik soilik bakarra baztertu dut nik. ●